92. Sin embargo, el interés que entraña para el procedimiento de elaboración del Plan General de Carreteras la evaluación ambiental se puede encauzar de otra forma, bien previendo la realización del correspondiente informe o estudio de evaluación (v.gr.: Ley estatal 37/2015, artículo 13), bien contemplando la remisión del Avance del Plan al departamento competente en materia de medio ambiente (Ley Foral 5/2007, artículo 14.4).
93. Cabe finalizar en este tercer grupo de cuestiones, referidas al procedimiento, señalando que ya desde su dictado originario la LPGC contempla en el caso de las modificaciones ordinarias del plan que figuran atribuidas a la competencia del consejero, la necesaria coordinación con las diputaciones forales y la emisión de un informe de la Comisión del Plan General de Carreteras, en el caso de que la modificación afecte a la priorización de las actuaciones programadas (artículo 14).

B) Técnica normativa

94. En el análisis que se aborda son de tener en cuenta las Directrices para la elaboración de proyectos de ley, decretos, órdenes y resoluciones, aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno de 23 de marzo de 1993 y publicadas por Orden de 6 de abril de 1993, del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo (en adelante, las Directrices).
95. Como se ha señalado más atrás, el anteproyecto se ajusta a las singularidades de orden técnico que debe reunir una norma de carácter modificativo (directriz séptima).
96. Por lo que se refiere a erratas u omisiones gramaticales, se observa la omisión de una preposición en el artículo tercero del anteproyecto, que da una nueva redacción íntegra al artículo 6 de la LPGC, en cuyo apartado 1, letra d), señala literalmente: “La nomenclatura del resto (de) las carreteras de la red de interés preferente se encabezará con una N”.
97. En el artículo sexto del anteproyecto, que da una nueva redacción íntegra al apartado 1 del artículo 6 de la LPGC, se debería precisar la referencia al capítulo 3 del título I, para distinguirlo de otro capítulo con igual número cardinal de la ley.




98. Cabe también plantearse en el artículo séptimo del anteproyecto, que da una nueva redacción al apartado 6 del artículo 12, la conveniencia de mantener el término “anteproyecto” (“... se tramitará el anteproyecto hasta su aprobación”).
99. Siendo el objeto del precepto la modificación del Plan General de Carreteras, que en su inicio se denomina “avance”, parece preferible mantener este término durante todo el proceso hasta su culminación, con la aprobación del Plan, en lugar de sustituirlo por un nuevo término, que puede inducir a considerarlo como un documento distinto y menos acorde con una documentación de naturaleza planificadora.
100. En relación con las cuestiones de orden terminológico, cabría unificar las diferentes denominaciones que emplea la LPGC para referirse a una misma realidad.
101. En concreto, “el catálogo de la red objeto del Plan” (artículo 3, letra c); “Red Objeto del Plan” (artículo 6.2, letra a); “la relación de carreteras de la Red Objeto del Plan será la contenida como anexo” (artículo 7.3); crean un panorama innecesariamente confuso.
102. Cabe finalizar señalando que la LPGC parece adolecer de una falta de adecuación a realidades sobrevenidas al tiempo de su dictado, poniéndose de manifiesto con la tramitación del presente anteproyecto, que entraña la tercera modificación de su contenido; lo que invita a reflexionar si no es llegado el momento de recurrir al dictado de una disposición legal enteramente nueva, en lugar de continuar con modificaciones extensas o reiteradas.

CONCLUSIÓN

La Comisión informa favorablemente el presente anteproyecto de ley con las observaciones que figuran en el dictamen.

Lo que certificamos en Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2018 para su conocimiento y consideración, recordándole la obligación prevista en el artículo 30.2 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de comunicar a esta Comisión la disposición o resolución que finalmente se adopte, en la forma y plazo que se establecen en el artículo 34 del Reglamento de Organización y Funcionamiento (aprobado por Decreto 167/2006, de 12 de septiembre).

Vº Bº:



Jesús María Alonso Quilchano,
Secretario

Sabino Torre Díez,
Presidente

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA-COMISION JURIDICA ASESORA**
Fecha de la firma: **27/04/2018 12:59:42**



AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA
COMISIÓN JURÍDICA ASESORA
EUSKADI

**EKONOMIAREN GARAPENeko ETA AZPIEGITURETAKO
SAILBURUA**

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2018ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran, aldamenear agertzen diren kideak bertan zeudela, 44/2018 zenbakiarekin erregistratutako **kontsulta** aztertu du, **Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia** araupetzeko Legearen hirugarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektuari buruzkoa (erref.: DNCG_LEY_135990/17_03).

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Eskubi Juaristi batzordekideak adierazi du batzordearen iritzia.

BATZORDEBURUA:

Sabino Torre Díez jn.

BATZORDEBURUORDEA:

Xabier Unanue Ortega jn.

BATZORDEKIDEAK:

Maria Teresa Astigarraga Goenaga and.

Luis M. Eskubi Juaristi jn.

Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jn.

Fátima Saiz Ruiz de Loizaga and.

Imanol Zubizarreta Arteché jn.

Ion Gurutz Echave Aranzabal jn.

Iñaki Calonge Crespo jn.

Miren Izaskun Iriarte Irureta and.


IDAZKARIA:

Jesús M. Alonso Quilchano jn.

64/2018 IRIZPENA

AURREKARIAK

1. 2018ko martxoaren 1ean, Ekonomia Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren otsailaren 28ko agindua sartu zen batzorde honetan; haren bidez, Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzeko Legearen hirugarren aldaketa egiteko Legearen aurreproiektua kontsultatzeko agindu da.
2. Kontsultatzea erabakitzen duen aginduekin eta irizpena eman behar den aurreproiektuaren bertsioarekin batera bidalitako espedientean, dokumentu interesgarri hauek daude:



- a) Justifikazio-memoria.
- b) Hasteko agindua.
- c) Lege-aurreproiektuaren lehen bertsioa, gaztelaniaz eta euskaraz.
- d) Aldez aurretik onartzeko agindua.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen ohiko 35. bilkuraren akta.
- f) Sarearen katalogoaren eguneratzea (gaztelaniaz eta euskaraz).
- g) Aholkularitza juridikoaren txostena.
- h) Hizkuntza-normalizazioari buruzko txostena.
- i) Bizkaiko Foru Aldundiaren katalogoari buruzko oharformalak.
- j) Kontrol Ekonomikoko Bulegoarentzako (KEB) memoria laburra.
- k) KEBen txostenerako arauaren testu erantsia.
- l) Arau-proiektua.
- m) KEBen txostena.
- n) Arabako Foru Aldundiari egindako eskaera, aurreproiektua aplikatzeko aurrekontu-kostuari buruzko txostena bidaltzekoa.
- o) Bizkaiko Foru Aldundiari egindako eskaera, aurreproiektua aplikatzeko aurrekontu-kostuari buruzko txostena bidaltzekoa.
- p) Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera, aurreproiektua aplikatzeko aurrekontu-kostuari buruzko txostena bidaltzekoa.
- q) Arabako Foru Aldundiak egindako txostena, aurreproiektua aplikatzeko aurrekontu-kostuari buruzkoa.
- r) Bizkaiko Foru Aldundiak egindako txostena, aurreproiektua aplikatzeko aurrekontu-kostuari buruzkoa.
- s) Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako txostena, aurreproiektua aplikatzeko aurrekontu-kostuari buruzkoa.



- t) Enpresaren gaineko eraginari buruzko txosten juridiko osagarria.
- u) Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen ponentzia teknikoko 48. bileraren akta.
- v) Aurreproiektuaren eranskina (gaztelaniaz eta euskaraz).
- w) Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzeko Legea aldatzeko Legearen aurreproiektuaren testua, gaztelaniaz eta euskaraz. Euskarazko bertsioa.
- x) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarentzako memoria.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

- 3. Batzordearen kontsulta-funtzioak “lege-aurreproiektuak” barnean hartzen dituelako ematen da irizpen hau, “horien edukia eta helburua direnak direla ere”, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko Legeak (azaroaren 24ko 9/2004) 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta xedatzen diren salbuespenetako batean ez badaude, eta hori ez da gertatzen kasu honetan.
- 4. Kasu honetan, beste aldaketa bat sartu nahi da Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia araupetzeko Legean (maiatzaren 30eko 2/1989); lehen, beste bi aldaketa egin zitzaizkion.

LEGE-AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

- 5. Justifikazio-memorian adierazten denez, hauek dira aurreproiektuaren xedeak: (i) planak hizpide duen sareko errepideen katalogoa eguneratzea, aldaketa-prozedura arintzeko, Eusko Jaurlaritzari esleitzuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak txostena egin ostean, horrela erakundeen koordinazioa ziurtatzeko helburuarekin, administrazio bakoitzaren eskumenak erabat errespetatuz; (ii) sarearen hierarkizazioa eta errepide-sarearen izendapen-printzipio orokorrak aldatzea; (iii) Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra egiteko prozedura, 2/1989 Legean xedatutakoa, lurralde-, ingurumen- eta garraio-eremuetan garatutako legeriara egokitzea, lurralde-antolamenduko beste tresna batzuekiko eta ingurumen-araudiarekiko koordinazioa ziurtatzeko asmoz; eta (iv) plana berrikusteko araubidea aldatzea, komunikazio-bideetan antolamendu-irizpide berriak ezartzeagatik gomendagarria egiten duten behingoan gertatutako inguruabarrak kontuan izanik edo trafikoen bilakaera eta egindako jarduketak aintzat hartuta berrikuste aldera.
- 6. Aurreproiektua bat dator aldatzeko arau batek izan behar dituen berezitasun teknikoekin, azalpen-atala dauka, eta, xedapen-atalean, zenbaki ordinalaz adierazitako



hamar artikulua, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat dauzka, baita eranskin bat ere.

7. Testuaren bidez, arauketa oso edo partzial berri bat eman nahi zaie EENLren zenbait manuri, edo haien apartatu batzuk ezabatu.
8. I. idazpuruan —Gai nagusiak—, II. atalburuaren —Eskumenak— 3. atalean, Errepideen Plan Orokorren xede den sarearen katalogoa aldatzeko eskumena gehitzen dio Eusko Jaurlaritzari.
9. III. atalburuan —Errepideen mailaketa eta izenak—, 5.1 atalean, beste sare-mota bat txertatzen du, osagarria deitzen dena.
10. Atalburu bereko 6. atalean, izen- eta nomenklatura-irizpide berriak sartzen dira errepide edo errepide-tarte mota berrietarako (lehentasunezko intereseko sareko gaitasun handiko interkonexioak, hiri-tarteak edo hiri ingurukoak). Gainera, aurreko aipamen batzuk ordeztzen dira (EAEko Autonomia Estatutuaren 20.3 artikulua, nazioarteko hitzarmen edo akordioak direla eta) eta organoak zehazten dira (foru-organok aipatzen dira, foru-aldundien ordeztzen).
11. 2. idazpuruan —Errepideen egitamu nagusiari buruz—, I. atalburuko —Zerdena, eremua eta indarraldia— 7. atalean, planak xede duen sareko errepideen sarea aldatzeko eskumena ere Eusko Jaurlaritzari esleitzen zaio (lehen, Legebiltzarrari zegokion).
12. Horrez gain, atal bereko 4. zenbakia ezabatzen da, bigarren mailako eskumen jakin batzuk Eusko Jaurlaritzari esleitzen baitzizkion.
13. 8. atalean, 1. zenbakia aldatzen da; hain zuzen, Errepideen Plan Orokorra behingoan gertatutako inguruabarrak direla-eta (komunikazio-bideetarako antolamendu-irizpide berriak ezartzeagatik, trafikoaren bilakaeragatik eta egindako jarduketengatik) berrikusteko aukera xedatzen da, hamabi urteko indarraldia amaitu baino lehen.
14. III. atalburuan —Errepideen Plan Orokorren gertaketa, berrazterketa eta aldaketa-aldia—, 12. atalean, beste era batera ematen da 6. zenbakia, Errepideen Plan Orokorren Batzordeak txostena egitea nahitaezkoa dela zehazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eta Euskadiko Garraio Agintaritzaren nahitaezko txosten analogoak sartzeko helburuarekin.
15. 12. atal horretan bertan, 8. zenbakia ere txertatzen da, adierazteko ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedurari buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko dela




Errepideen Plan Orokorra egiteko, berrikusteko eta aldatzeko prozedurak irauten duen bitartean.

16. 13. atalean ezartzen da ezen, Errepideen Plan Orokorra berrikusteko (*in genere*, gehigarririk gabe) edo aldatzeko, hura onartzeko ezarrita dagoen prozedura berari jarraituko zaiola.
17. Azkenik, EENLren eranskina ordeztzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorrak xede duen sarearen katalogoa eguneratzeko asmoz.

GOGOETAK

I ESKUMENEI LOTUTAKO ALDERDIAK

18. 89/2000 Irizpenean (EENLren bigarren aldaketari dagokiona) esan genuen moduan, errepideen arloan oro har Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean dagoen eskumenen konstituzio- eta estatutu-zedarriztapena, funtsean Konstituzio Auzitegiaren 1998ko martxoaren 18ko epaian (65/1998 KAE) oinarritzen baita eta gero 132/98 KAEk baieztatu eta beste ikuspegi batetik zehaztu baitzuen, lehenengo eta behin —errepideak jabari publikoko ondasunen ikuspegitik aztertzen direnean—, Estatuarentzat Konstituzioaren (EK) 149.1.24 artikuluan eta autonomia-erkidegoentzat bakoitzari dagokion estatutu-manuetan (EKren 148.15 artikuluekin bat etorriz) xedatutako eskumen-tituluen arabera da. Zedarriztapen horren arabera ezartzen den banaketa materialean, bakarrik Estatuaren edo autonomia-erkidegoaren eskumenekoak diren errepideez hitz egiten da, haien ibilbidea erkidegoaren barruan edo erkidegoen artean igarotzen den kontuan izanik. Irizpide horrez gain, aintzat hartzen da errepidea interes orokorrekoa edo erkidegoaz gaindikoa den, eta hori errepidearen titulartasunarekin bat etortzen da.
19. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) azaldutako panoramari dagokionez gertatzen den berezitasuna da errepideen arloan foru-eskumena dagoela (EAEAREN 10.34 artikulua); bakarreko eskumen hori Autonomia Estatututik zuzenean datorrenez —37.3.f) artikuluko lehen tarterkia, 10.34 artikuluari lotuta—, foru-araubidearen edukiaren muin ukiezinaren zati bat da (76/1988 KAE, zuzenbideko 6. oinarria).
20. Errepideen arloko estatutu-xedapena garatuz, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoak, LHLk), 7.a).8 atalean, errepideen plan orokor bat onartzea xedatzen du erakunde erkideen alde, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) errepide-sarearen koordinazio egokia ziurtatzeko asmoz, eta horretarako eman zen EENL.




21. EENLren xedea mugatua den arren, hor xedatutako esku-hartzeak plangintza-izaera duenez —testuak berak erakunde erkideen eskumen-tituluetan eta ahalmenetan finkatzen du, errepideen arloko koordinazioari (LHLren 7.a).8 atala), lurralde-antolamenduari (EAEAREN 10.31 artikulua) eta ekonomia-jardueraren sustapen eta plangintzari (EAEAREN 10.25 artikulua) dagokienez—, errepideak eta Estatuaren beste eskumen-titulu batzuen litekeen eragina aztertzeko beste ikuspegi bat sartzen da; horrelakoak dira, adibidez, KEren 149.1.13 artikulutik (ekonomia-jardueraren oinarriak eta plangintza orokorra), KEren 149.1.24 artikulutik (interes orokorreko edo autonomia-erkidego bati baino gehiagori eragiten dieten obra publikoak) eta KEren 149.1.21 artikulutik (komunikazio-araubide orokorra eta ibilgailu motordunen zirkulazioa eta trafikoa) datozenak, 132/1998 KAEn adierazi zen moduan, hain zuzen ere EENLren konstituzio-analisia dela eta.
22. Ondoren, Arbitraje Batzordearen zenbait ebazpenek (zehazki, 1/2003, 4/2003 eta 6/2003 ebazpenek) errepideen eta trafiko-kudeaketaren arloko eskumenen arteko zedarritzapena berretsi dute —oraingoa EAEn barneko ikuspegitik—, batzuetan zeharrekoa baita. Otsailaren 24ko 1/2003 Ebazpena aipatuko dugu, nabarmentzearen:

Errepideen arloan Administrazio Publikoen eskumetzat eta haien eskudantziek trafiko-kudeaketa dela-eta dakarten gauzatzen jotzen denaren zedarritzapen kontzeptualak ez dirudi, hasiera batean, ez baketsua ez eroso. Jasota geratu behar da arrazoitze arretatsu batek bakarrik aurkitu eta marraztu dezakeela bi eskumenen arteko banalerroa.

Foru-aldundiari bide horiei dagokienez adjudikatutako eskumenak, behintzat, jabari publikoaren titulartasuna —aztertzen den erabateko eskubide erreal administratiboaren fisionomiari baitatxekio— eta karga-edukitza dauzka; horrek, hain zuzen ere, karga saihetsezin gisa, ondasun publikoa ibilgailuen zirkulazioaren erabiltzaileen esku uzteko eta haren xedek eta onurak betetzeko egokiak diren ezaugarriez hornitzeko balio du. Bide publikoetatik igarotzen diren erabiltzaileek —gozamen mugatuko eskubide erreal administratibo banaren titular gisa— zirkulazio-modalitate horrek beren esku uzten duen edukitza ibiltaria bereganatu eta gauzatzen dute eta, horri esker, eskubide subjektibo batzuk —askotariko izaerak eta jatorriak dituztenak— bete ahal dira, sarbide horren ondoriozko mugigarritasunik gabe zapuzturik edo osatu gabe geratuko bailirateke.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, trafiko-kudeaketari dagokionez, bi helburuko administrazio-egintzak sortzen dituen eskumen-sorta bat hartzen du bere gain. Alde batetik, nahi dute ibilgailuen zirkulazioak —bide publikoen gainazaleko



trazadurarekin bat datorren espazio fisikoaren gainean— segurtasun normalizatuko ezaugarriei eustea, sen onaren arabera zirkulazio-kaosaren, bide-trafikoaren erritmo areagotuaren edo gehiegizko geldotasunaren ondoriozko edozein oztopo edo traba neutralizatzen dutenei. Bestalde, ahalegintzen dira ibilgailuen zirkulazioaren gertakariak haien eragiketetan aktiboki parte hartzen dutenen bizitzarako eta osotasun fisikorako eskubideak arriskuan jar ez dezaten, horiei zuzeneko kalterik egin ez diezaioten eta bide publikoen bitartez garraiatutako pertsonen edo ondasunen ukigabetasunaren aurka egin ez dezaten.


23. Atal honetan, komenigarria da ohartaraztea erabaki batzuek konstituzio-kontrakotasuna adierazi zutela; hain zuzen, Konstituzio Auzitegiaren 132/1998 Epaia —EENLren aurka jarritako errekurtsua, jatorrizko bertsioan— eta 168/2009 Epaia —EENLren bigarren aldaketari buruzko urriaren 4ko 5/2002 Legearen aurkako errekurtsua—; izan ere, geroago ikusiko den moduan, aurreproiektuaren eranskinean oraindik kontuan hartzen diren errepede-tarte batzuk deuseztatzea ekarri zuten.

II EGITEKO PROZEDURA

24. Batzordeak (guztien orde, 39/1999 eta 84/2003 Irizpenak) esan ohi du betearazlearen barruan lege-aurreproiektuak egiteko prozedura aztertzean honako hau kontuan hartzen duela: “legegileak ez du betearazten Konstituzioa, baizik eta zuzenbidea sortzen du askatasunez, hark ematen duen esparruaren barruan, arauzko ahala Konstituzioaren eta legeen arabera gauzatzen baita (EKren 97. artikulua)” (besteak beste, 209/1987 KAE, abenduaren 22koa); horregatik, Konstituzioak, EAEAEk edo, batzuetan, lege organikoek izapide espezifikoren bat aurreikusi ezean —kasu egiazki ezohikoak gure antolamenduan—, azterketa hura, funtsean, tresna bat da proiektatutako arauketaren zentzuzkotasuna ikertzeko, hau da, ikusteko baliagarria den (proposatutako eduki zehatzarekin) egin denean xede dituen helburuak lortzeko.
25. Horren ondorioz, batzordeak malgutasunez jardun behar du eta haren irizpenaren xedeak proiektatutako arauketari asmatzen laguntzea izan behar du, eta horrek ez du eragotzi behar aurreproiektua, memoria eta horrekin datorren espedienteko gainerako zatiak egiteari buruzko gogoetak egitea.
26. Ondorio horietarako, erreferentziako tresna garrantzitsu bat dugu: Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea (abenduaren 22ko 8/2003; aurrerantzean, XOEPL); lege horrek Jaurlaritzaren jardura bideratu nahi du, lege-proiektuak idaztean xedapen orokorrak egiteko erabiltzen duen metodologia bera baliatzeko ahalegina egin dezan.




27. Lege-proiektuak egiteko prozedura aztertzeke, batzordeak XOEPLren jarraibideak sistematizatu ditu eta honako fase hauek bereizi ditu: (i) hasierako fasea, ekimena proposatu duen organoaren barrukoa, helburu nagusitzat duena hasierako testua finkatzea, hari eusten dioten arrazoiak kanporatzea eta kasuan-kasuan izapideetarako beharrezkoa den dokumentazioa egitea; (ii) prozedura irekitzeko fasea, arauak eragin diezaiekeen sektore eta administrazioak aintzat hartuta; (iii) txostenak —nahitaezkoak eta aukerakoak— egiteko fasea; eta (iv) amaierako fasea, non ekimena bultzatu duen organoak, prozedura-izapide guztia ebaluatuta, behin betiko testua ezarri eta azken dokumentuak —justifikazio- eta ekonomia-memoria— prestatzen dituen.
28. Egokia da hemen gogoraraztea proiektua egiteko prozedura, orain horri buruzko txostena egin baita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015, APEL) indarrean sartu eta gero hasi zela; hori dela eta, kontuan hartu beharko lirateke lege horrek eduki ahal dituen zehaztapen berriak, legegintza-ekimena eta araugintza-ahala gauzatzeari dagozkion izapide batzuei eragiten dietenak —bereziki, 129. artikulua, erregulazio onaren printzipioak; 132. artikulua, arau-plangintza; 133. artikulua, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea, formalki oinarritzat jotzen baitira—.
29. Horri dagokionez, orobat bidezkoa da ohartaraztea Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabakiaren bidez xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartu zirela (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abenduaren 12ko 132/2017 Ebazpenean argitaratu zen EHAA); horren bitartez, Estatuko legearen arau berriak euskal legean xedatutako izapideekin harmonizatzeko orientabideak eman nahi dira.
30. Aipatutako jarraibideak zorrozki proiektuari aplikatzekoak ez liratekeen arren —akordioak ondorioak izan baino lehen hasi zen egiten proiektua—, EAE Euskal Autonomia Erkidegoko xedapen orokorrak egiteko prozedura –APELen aginduren ostean XOEPLn xedatutakoa– zuzendu behar duten irizpideak ematen dituzte azken buruan, zalantzarik gabe.
31. Irizpide horiek aintzat hartuta, nabarmendu behar da proiektuaren justifikazio-memorian, prozedura hasteko agindu formalaren aurrekoan (2017ko ekainaren 23a), lege-aurreproiektuaren eta haren bideragarritasunaren berri ematen dela, alderdi hauek barne: (I) EAEn, Eusko Jaurlaritzaren eta lege-ekimena proposatzen duen sailaren eskumen-eskudantziak; (II) Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak aurreproiektua lantzeko asmoz egin zituen bilerak; (III) EENLn sartzen diren aldaketen edukia; (IV) aurreproiektuaren ondoriozko kostuen, diru-sarreraren edo beharrezko finantzaketaren falta; (V) aurreproiektua sartzen den aurrekontu-programa ekonomikoari dagokionez nabarmendu daitezkeen xedapenak; (VI) adierazten da



kostu eratorriak ekar diezazkiekeela foru-aldundiei eta udalei, errepideen arloko eskumenak direla eta; eta (VII) ez du eskatzen Europar Batasunaren aurrean izapideak egiterik.

32. Ekonomia Garapeneko eta Azpiegituretako 2017ko ekainaren 30eko aginduaren bidez, aurreproiektua egiteko prozedura hastea erabaki zen, adierazi zen ekimenaren kostuei buruzko memoria ekonomiko bat egingo zela eta aurreratu zen ez diola sailari gasturik ekarriko.
33. Azpimarratzen da ekimena *Legesarea*, *Legegunea* eta *Tramitagune* plataformetan argitaratuko dela, eta, ondoren, jarraitu behar zaien izapideak biltzen ditu eta adierazten du ekimenean ez dela entzunaldi-izapiderik egin behar; izan ere, ez die herritarren eskubide eta interes legitimoei eragiten edo ez du eragin nabarmenik ekonomia-jardueran eta ez die betebeharrak garrantzitsurik ezartzen hartzaileei. Sailburuak behin betiko onartuko du eta eragin ahal zaien beste administrazio batzuei (foru-aldundiei, udalei eta Estatuko Administrazioari) kontsultak egiteko izapidea hasiko da.
34. Bil daitezkeen txostenak aipatzen ditu —aholkularitza juridikoa, hizkuntza-normalizazioa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Euskadko Aholku Batzorde Juridikoa— eta esaten du generoaren arabera eraginaren txostenik ez dela egin behar; izan ere, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideen arabera (Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko erabakiaren bidez onartu ziren), indarreko beste arau baten aldaketatzat jotzen da eta ez du funtsezko eraginik emakumeen eta gizonen egoeran. Geroko egintzak direla-eta, prozeduraren memoria laburra egitea, Gobernu Kontseiluak onartzea eta hurrengo legebiltzar-izapideak betetzea aipatzen dira.
35. Azkenik, jakinarazten da Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko erabakia beteko dela (horren bidez, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu itxura hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan egiteko neurriak onartzen dira), itzulpena Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialari esleituz.
36. 2017ko uztailaren 12ko aginduaren bidez, Ekonomia Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak aurreproiektua aurretik onartzen du eta bidezkoak diren izapide guztiek jarraitzeko agintzen du. Aginduari aurreproiektuaren hasierako testua eransten zaio, gaztelaniaz idatzia (2017ko uztailaren 12ko bertsioa).
37. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen 2017ko uztailaren 19ko bileraren akta bat dago; bertan, besteak beste, EENL aldatzeko aurreproiektua jorratzen da eta oniritzia ematen zaio idatzitako zirriborroari.



38. Errepideen Plan Orokorrak xede duen sarearen katalogo bat txertatzen da, 2017ko uztailaren 20an eguneratuta.
39. Ekimenaren analisi juridikoari dagokionez (XOEPLren 7.3 artikulua), ekimenaren egile den sailaren aholkularitza juridikoak txostena egin du; horren bidez, *Tramitaguner*en bitartez egindako izapidetzearen berri ematen da, eragindako egintza formalak barne, baita ekimena babesten duten eskumen-tituluen berri eta lehen –aurreproiektura heldu arte– katalogoan sartu diren eta funtsezkoak ez diren aldaketen berri ere.
40. Aurreproiektuaren egitura adierazten du eta haren alderdi batzuk zehazten ditu; adibidez, Eusko Jaurlaritzaren eskudantzia berriak, sareko errepideen zerrenda aldatzeko ahalmena, Errepideen Plan Orokorren aldaketa berezia eta berrikusketa egiteko ahalmenak, plana indarraldian berrikusteko aukera eta aurrez ezarritako berrikusteko betebeharren ezabaketa, sektore-koordinazio berrien aurreikuspenak, bide-sareen mota berria eta izendapen eta bide-nomenklaturako irizpide berriak.
41. Jarraian, txostenak lege-mailako ekimenei aplikatzekoak diren prozedura-irizpideak aipatzen ditu eta aurreproiektuak ondoren jarraitu beharko dien izapideak biltzen ditu.
42. Espedienteari aurreproiektuaren euskarazko testua (2017ko abuztuaren 28an) eta dagokion errepide-katalogoa gehitu zaizkio.
43. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak ere txostena egin du, espedientea bere ikuspuntutik aztertzeko, eta honako hau egiaztatu du: (I) aurreproiektua hasieran ez dela euskaraz idatzi, zenbait arauk eta zuzentarauk (128/2007 Dekretuak, XOEPLk, Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Planak) aholkatzen duten moduan, eta gero itzuli egin dela; eta (II) lurralde-antolamenduko zuzentzarauen aurreikuspenak gogorarazi ditu garraio-sareen garapenak hizkuntza ezagutzeko eta pertsonen artean transmititzeko prozesuak errazten dituzten espazioak sortzeko baliatzeari dagokionez, euskararen presentzia analizatuz eta kontuan hartuz lurralde-planak egiterakoan.
44. Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazio-idazki bat jaso zen (2017ko irailaren 5ean); horren bidez, eranskineko errepide-katalogoan zuzenketa formal batzuk sartzeko beharra ikusarazi zen.
45. Egiteko prozeduraren lehen memoriak (2017ko azaroaren 22koa) hasteko eta aurreproiektua aurretik onartzeko aginduak eman ostean egindako izapideen berri ematen du eta foru-aldundietara, EUDELera eta Estatuko Administrazioa —Sustapen Ministeriora— bidali dela jasotzen du; halaber, saileko aholkularitza juridikoak eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak egindako txostenak,



Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazio-idazkia eta katalogoan sartutako aldaketak (identifikazioak, toponimiak, tarteen hasierak eta amaierak, saihebidereen baten tartearen zuzenketa) jakinarazi dira.

46. Aurreproiektuaren testuak eta eranskinak sartzen dira, 2017ko azaroaren 22koak, bi hizkuntzetako bertsioetan.
47. KEBen 2017ko azaroaren 29ko txostenak ekimena ezartzeko sail-eskumenak azaletik berrikusten ditu eta haren aldaketa garrantzitsuenak aipatzen ditu; aurreproiektuaren zioen azalpenari heltzen dio gainerako berriak ezagutzeko asmoz.
48. Onartzen du aurreproiektuak ez diola kosturik edo ondorerik ekarriko EAEko ogasun orokorrari; hala ere, beste administrazio publikoetan horrelakoak izango ditu, baina adierazten du ez duela kalkulurik egin. Eskatzen du behintzat aurreproiektua onartu baino lehen txertatzeko.
49. Gainera, jasotzen du EUDeli egindako deia ere ez dela agertzen, ondasunen eta pertsonen garraioaren sektorearen gaineko eragina ez dela aipatzen eta enpresaren eraginaren txostena ez dela erantsi, eta XOEPLk ekonomia-memoriari dagokionez ezartzen dituen eskakizunak gogorarazi ditu. Haren ustez, Euskadiko Garraio Agintaritzaren txostena baztertu egin da, azkenik.
50. Aurreproiektuak eduki ekonomikorik ez izan arren, amaitzeko gogoeta batzuk egin ditu.
51. Gogoeta horien ondorioz, 2017ko abenduaren 5ean, hiru foru-aldundiei eskatu zitzairen aurreproiektua aplikatzeak ekar liezaiekeen aurrekontu-kostua kalkulatzeko.
52. Gipuzkoako Foru Aldundiak (2017ko abenduaren 21ean) adierazi zuen izendapenen bat zuzentzea baino ekarriko ez liokeela eta aurreproiektuaren aldaketan xedatutakoarekin bat etorri dela. 300.000 euroko kostu zenbatetsia gauzatu du.
53. Bizkaiko Foru Aldundiak (2017ko abenduaren 24an) kalkulatu du aldaketak 1.102.000 euro kostatzen direla.
54. Arabako Foru Aldundiak (2018ko urtarrilaren 25ean) adierazi du kostua nomenklaturaren seinaleak aurreproiektuaren eranskinera egokitzearen ondoriozkoa izango dela, baina ez du muntarik zehaztu, eta zuzenketak egin ditu katalogoan sartutako foru-errepide batzuei dagokienez.
55. Sail sustatzailearen aholkularitza juridikoak (2018ko urtarrilaren 30ean) txosten osagarri bat egin du arauak enpresen eraketan, abiatzean eta funtzionamenduan duen



ondorioei buruz; bertan, adierazi du aurreproiektuak ez diela kargarik edo eraginik ekarriko aipatutako alderdiei.

56. Errepideen Plan Orokorren Batzordearen 2018ko urtarrilaren 31ko bileraren akta berria txertatu da; bertan, aurreproiektuaren izapidetze-egoeraren, azken bertsioaren eta eman dituen behin-behineko xedapenen berri ematen da.
57. Aurreproiektuen eta haren eranskinen bertsioak txertatu dira, bi hizkuntza ofizialetan, 2018ko otsailaren 22an.
58. Bigarren prozedura-memoriak, 2018ko otsailaren 22koak, gauzatutako izapideak azaltzen ditu eta aurreko memoriari gehitutako txostenei eta alegazioei erantzuten die. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostenari dagokionez, esaten du aurreproiektuak ez duela inolako planik onartzen. KEBen gogoetak direla eta, hau adierazten du: (I) foru-aldundientzako kostuak haiei egindako eskaerez eta foru-aldundiek berek egindako txostenez likidatu dira, beraien zenbatespenen berri eman baitute; (II) EUDELi entzunaldia eman zitzaion; (III) ez dago eraginik sektore ekonomikoentzat –adibidez, garraioarentzat–, ezta enpresentzat ere; (IV) Euskadiko Garraio Agintaritzaren txostenak planak egiteari eragiten dio, eta aurreproiektuak Errepideen Plan Orokorren prozedura-izapidetzeari, planaren xede den sarearen izendapenei eta nomenklaturari eragiten die; geroago, plan orokorra bera izapidetzen denean, eskatu beharko da txostena. Azkenik, adierazten du katalogoan zein zuzenketa sartu den jasotako alegazioak aztertutakoan.
59. Batzordearen aburuz, aurreproiektua izapidetzean XOEPLn xedatutako izapideak oro har kontuan izan dira, EENLk betetzen duen xede mugatua aintzat hartuta (1. atala): Euskal Herriko Errepideen Egitamu Nagusia zehaztea eta arautzea, baita, Autonomi Elkarrekin Osorako Erakundearen agintepideen barruan, Egitamu horri datxekien ahalpide-erabilerak elkarri egokitzea ere.
60. Helburu horretarako —Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabakian azaltzen den moduan—, *Tramitagune* bitartez egindako izapidetzearen bidez, sailaren txosten juridikoaren arabera gauzatu baita, aurreproiektuaren alderdien inguruko iritzia emateko gonbit orokorra egin zaie herritarrei, eta gardentasunari buruzko legeriaren ondoriozko informazio aktiboko betebeharrak bete dira.
61. Bestalde, errepideen arloan eskumenak dituzten erakundeek –bereziki, lurralde-eremu desberdinetako administrazio publikoek– duten protagonismoaren ondorioz, prozedurari eta antolaketari lotutako alderdiek garrantzia hartzen dute EENLren edukian.



62. Xede horretarako, prozeduran foru-erakundeek parte hartu dute, plan orokorraren egikaritzean nahasitako agente nagusi gisa, EAEn barruan errepideen arloan eskumenak dituzten organoak direlako; erakunde horiek ordezkaritza daukate eta Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak aurreproiektua dela-eta egin dituen prestaketa-saio ugaritan parte hartu dute.
63. Udal-erakundeek ere ordezkaritza izan dute, EUDEL-en bidez, administrazio horiek errepideen titularrak izan daitezkeelako eta bide-jabari publikoan eskumenak gauzatu ditzaketelako, eta aurreproiektuaren izapidetzean parte hartzeko aukera izan dute.
64. Hori gorabehera, aurreproiektuak bai Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen bai Euskadiko Garraio Agintaritzaren txostenaren bidez sartu nahi duen partaidetza-aurreikuspenak gomendatzen zuen organo horiek agertu ahal izatea, horretarako prest daudela erakusteko asmoz.
65. Halaber, Errepideen Plan Orokorra egiten, berrikusten eta aldatzen denean aurreproiektuak sartzen dituen planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko indarreko araudia betetzeko, ingurumen-arloan eskumenak dituen sailari kontsulta egin beharko zitzaion.
66. Azkenik, batzordeak zera esan du: EENLren bigarren alaketaren jatorrizko aurreproiektua izapidetzean, hori egiteko parte hartzeko aukera eman zitzaion Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari —oraingoan ez zaio aukera hori eman—; irizpenean kontuan hartu da ibilbideen ezarpenak politika ekonomikoan oro har duen ondorea.

III LEGE-AURREPROIEKTUAREN ANALISIA

A) Gogoeta orokorrak

67. Aurreproiektuaren xedeen artean, honako hauek gailentzen dira: batetik, “planak xede duen sareko errepideen katalogoa eguneratzea, aldaketa-prozedura arintzeko Eusko Jaurlaritzari esleituz,”; eta, bestetik, “plana berrikusteko araubidea aldatzea, gomendagarria egiten duten behingoan gertatutako inguruabarrak kontuan izanik”. Horren harira, komeni da EENLren bi xede garrantzitsuenen ezaugarri batzuk azpimarratzea.

Errepideen katalogoa:

68. Errepideen katalogoak, zeina aurreproiektuaren eranskinean eguneratzen baita eta beti, eman zenetik, lagundu baitio EENLri —“7.3 atala.– Egitamuairen Gai den Sareko errepideen zerrenda Lege honen eranskin gisa jasotakoa...”—, “Egitamuairen Gai den Sarea” delakoa eratzen du; honela definitzen da 7.2 atalean: “Kondaira-Lurraldeak elkarri edo



Autonomi Elkartekoez besteko Administrazietako errepideekin elkartzekoak diren errepideak ere, horietako bide-goiaren garrantziaren arauera”.

69. EENLren manu beraren jatorrizko idazketaren arabera (7.3 eta 4. atalak), errepide-zerrenda hori aldatzea Eusko Legebiltzarrari zegokion oro har; hala ere, Eusko Jaurlaritzak nolabaiteko eskumen eratorria zeukan esleituta, funtsezkoak ez diren aldaketa teknikoetarako, ibilbideak kanpoan utzi edo barnean hartu gabe.
70. Aurreproiektuak sartzen duen aldaketa Eusko Jaurlaritzari katalogoa aldatzeko eskumen osoa esleitzean datza; horrela, arinago erantzun ahalko die errepideen katalogoa doitzeko behar sarriei, hots, erakunde erkideei esleitzen zaien koordinatzeko zereginari.
71. Dena den, haren zeregina hierarkizazio-irizpideen menpe dago 5.1 artikuluan jasotzen diren sareen funtzionaltasuna dela-eta; horrez gain, berme batzuk dauzka, hala nola foru-aldundiei nahitaezko entzunaldia emateko eta Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen txostena biltzeko beharra.
72. Zehaztu behar da antolaketa-modu hori —lege-mailako arau baten bidezko harremana eta aldebereko gaikuntza edo deslegalizazioa— sektorean indarrean dagoen legerian egiatan xedatzen den praktika dela (adib., Estatuko Errepideen abenduaren 29ko 37/2015 Legearen 4. artikulua eta xedapen gehigarria eta Nafarroako Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legearen 4. artikulua eta lehen xedapen gehigarria).
73. Dena den, aurreproiektuaren bidez trantsizio bat gauzatzen da, lege-mailako arau baten bitartekaritza beharrezkoa zen egoera batetik dekretu bidez jarduteko ia mugarik gabeko ahalmena egongo den etorkizuneko egoerara. Hortaz, gomendagarria dirudi aurreproiektuak funtsezko irizpideren bat aurreikusteak —aipatutako prozedura-bermeaz gain— betearazleari katalogoa egokitzeko zereginean laguntzeko asmoz (adib., Estatuko 37/2015 Legearen 4.8 artikuluan horri buruzko elementu garrantzitsuak biltzen dira).
74. Kontuan izan behar da ezen, aurreproiektuaren idazketa berriarekin, Eusko Jaurlaritzak aldaketa teknikoak egiteko bete behar zituen kasuak ere desagertzen direla.
75. Konstituzio Auzitegiaren 132/1998 eta 168/2009 epaiek eman zituzten iritzietara itzulita, esan behar da, aurreproiektuak txertatzen duen eranskina dela-eta, horien arabera EENLren katalogoaren zerrendari gehitutako zenbait errepide edo horien tarte batzuk deuseztatu zirela, konstituzio-kontrakotasunagatik.
76. Irizpena eman zaion eranskinari dagokionez, badirud Trebiñuko Konderriari dagokion tarte behar bezala modulatu dela (132/1998 KAEk aztertu zuen kasua), alde batetik;




baina, bestetik, eranskinak, antza, 168/2009 KAEk konstituzio-kontrakotasunagatik deuseztatu zituen bi tarte edo errepide barnean hartzen jarraitzen du.


77. Konstituzio-kontrakotasuneko bigarren errekurso horren epaitzarekin bat etorriz, bi errepide edo tarte arazotsu identifika daitezke: (I) A Iparralde-Hegoalde Bideari eta Nafarroa-Gipuzkoa konexioari dagokiona, AP-1 kodea duena, Burgos-Kantauri autobidea, Burgosko PMn (Miranda Ebron) hasten dena eta Armiñónen bukatzen dena; eta (II) C. Ebroko Bidea, AP-68 kodea duena, Bilbo-Zaragoza autobidea, A-8 lotunean hasi (Hegoaldeko Soluzioa) eta Burgosko PMn bukatzen dena.
78. Bestalde, batzordeak ohartarazten du Europar Batasunetik datozen zenbait arauk —bereziki, abenduaren 11ko 1315/2013 Araudia, Europa Barneko Errepideen Sarea garatzeko Batasunaren orientabideena, 661/2010/EB Erabakia indargabetzen duena— EAEko lurralde-eremutik igarotzen diren errepideak sartzen dituztela beren sareetan (I. eranskina, Sare globalaren eta oinarritzko sarearen mapak, 3.4 Sare globala eta oinarritzko sarea: errepidea).
79. Hala ere, deigarria da aurreproiektuan arau-errealitate berri hori inola ere ez aipatzea —behintzat oro har aipatzen baita sektoreko legeria konparatuan (adib. Estatuko 37/2015 Legearen 4.6.a) artikulua, 5/2007 Foru Legearen 70. artikulua)—; egokia litzateke aipamen hori 5.1.a) edo 6.2 artikuluan kokatzea.

Errepideen Plan Orokorra:

80. EENLk xedatzen dituen xede nagusietako bigarrenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra “agiri bat da, Autonomi Elkarteko errepideen sareak elkarri behar bezala egokituzkoak direla ziurtatzeko Euskal Administrazio Publikoek euren sareetarako indarrean jarriko dituzten teknikazko eta seinaleak jartzeko arauak finkatuko dituen eta aitzin-neurriak, helburuak, lehentasunak eta Egitamuairen Gai den Sarean gutxienez egin beharreko hobekuntzak zehaztuko dituen” (7.1 atala), eta, beraz, aurreproiektua baino lehen indarrean zegoen panorama aurreproiektuak eragingo dien hiru ardatzen inguruan sistematiza daiteke:
 - a) Planari, bere indarraldian (12 urte), denboran aurrez ezarritako berrikuspenak egin behar zitzaizkion (8.1 atala) eta ohiko nahiz ezohiko aldaketak egin ahal zitzaizkion (8.3 atala).
 - b) Eskumena Eusko Jaurlaritzari (berrikuspenak eta ezohiko aldaketak, 3.b) atala) edo Eusko Jaurlaritzako errepideen arloan eskumenak dituen sailari (ohiko aldaketak, 4.b) atala) egokitu ahal zitzaion.



- c) Bai planaren berrikuspenak bai ezohiko aldaketak prozedura berberaren menpe egongo lirатеke (13. atala), eta ohiko aldaketak sailburu eskudunaren aginduen bidez egingo lirатеke (14. atala).
81. Kontuen lehen taldean, aurreproiektuak plana berrikusteko arrazoiak aldatzen ditu; hain zuzen, nahitaez denbora-aldi bat (sei urte) igarotzearen menpe egon beharrean, aurreikusi ezin diren gertaera batzuk (bideetarako antolamendu-irizpide berriak, trafikoen bilakaera eta egindako jarduketak) jazotzen direnean berrikusi ahal izatera pasatzen da.
82. Kontuen bigarren taldeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bai berrikuspenak bai ohiko aldaketak onartzeko eskumenari eusten dio, baina berrikusteko arrazoi posible zabalagoetara egokitzen da eta sei urtean behingo berrikuspena ezabatzen da.
83. Kontuen hirugarren taldean, plana egiteko, berrikusteko eta aldatzeko prozedura erkidea aldatzen da, eta lehen aipatutako nahitaezko txostenak sartzen dira, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearena bai Euskadiko Garraio Agintaritzarena.
84. Txostenaren izaerari buruzko bestelako xedapen zehatzik ez dagoenez, ondorioztatu behar da ez duela nahitaezko ondorio loteslerik edukiko (APELen 80. artikulua); horrek ez du halaberrez ezeztatzen Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenari hori eratzeko arauaren 24. artikuluan (Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea —maiatzaren 31ko 4/1990—) ematen zaion izaera loteslea.
85. Osterantzean, badirudi aipatutako organoak txostena egiteko xedapena bat datorrela lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren sektoreen interesekin; izan ere, zalantzarik gabe, errepideen planifikazioan bat egiten du eta Lurralde Antolamenduaren Batzordea gordetzen laguntzen du. Bestalde, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean (maiatzaren 31ko 4/1990) legez beste eskumen batzuk esleitzeko aukera xedatzen da (“28. atala.- Euskal Herriko Lurralde-Antolakuntzako Batzordea da Lurralde eta Hiri-Antolakuntzari buruzkoan Euskal Herriko Autonomi Elkarteko elkar hartzeko aholku emateko ihardutze-saila, eta Lege honek beste edozein legezko manuk eta araudiz finka daitezenek izenda diezazkioten aginpide eta egitekoak izango ditu”).
86. Antzera, Euskadiko Garraio Agintaritzak eman beharreko txostena aipa daiteke.
87. Sail sustatzaileak alegazio jakin bat dela-eta erantzun duen moduan, Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legeak (abenduaren 15eko 5/2003) jadanik errepide-planei buruzko txostena egitea xedatzen du —5. artikulua. Eginkizunak: ...1.5. Kontsultakoak. Gai



hauen inguruko txostenak ematea dagokio Euskadiko Garraio Agintaritzari: a) Errepide-planen gaineko txostenak egitea, hala plan orokorren gainekoak nola lurraldearen arloko planen gainekoak—.

88. Beraz, aurreproiektuak, puntu horretan, garraioari buruz badagoen arauaren alderantzizkoa sartu baino ez du egiten, bidaltze errezeptizioari helduz.
89. Kasu honetan, nabarmentzekoa da Euskadiko Garraio Agintaritzaren Legeak (abenduaren 15eko 5/2003) txostena egiteko gehienez hiru hilabeteko epea ematen duela eta hori aginduzkotzat jotzen duela (6. artikulua).
90. Prozedura horretan bertan planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruz indarrean dagoen araudia betetzeko xedapena dela-eta —aurreproiektuak hori EENLren 12.8 atalean sartu nahi baitu, Errepideen Plan Orokorra egiteari, berrikusteari eta aldatzeari dagokionez—, esan behar da derrigortasun hori ingurumen-ebaluazioari buruzko legeriatik etorriko dela, kanpoko eta oinarizko iturri bateko kasuren batean (Estatuko Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legea —abenduaren 9ko 21/2013—).
91. Xedapena horrela ikusita, erredundantea da, ez da beharrezkoa eta nahasmendua sor dezake antolamenduan ezartzen den betebeharraren benetako iturriari buruz.
92. Hala ere, ingurumen-ebaluazioak Errepideen Plan Orokorra egiteko prozedurarako duen interesa beste modu batean bidera daiteke, dagokion ebaluazio-azterlana edo txostena egitea xedatuz (adib., Estatuko 37/2015 Legearen 13. artikulua) nahiz planaren aurrerapena ingurumen-arloan eskumenak dituen sailari bidaltzea ezarriz (5/2007 Foru Legearen 14.4 artikulua).
93. Amaitzeko, prozedurari buruzko kontuen hirugarren talde horretan, adierazi behar da ezen EENLk, hasieran eman zenetik, sailburuaren eskumenari esleituta dauden planaren ohiko aldaketei dagokionez xedatzen duela foru-aldundiekin koordinatu behar direla eta Errepideen Plan Orokorraren Batzordearen txosten bat behar dela aldaketak programaturiko jarduketan lehentasunari eragiten badio (14. atala).

B) Araugintza-teknika


94. Heldu zaion analisisian, kontuan hartu behar dira Gobernu Kontseiluaren 1993ko martxoaren 23ko erabakiaren bidez onartu eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren 1993ko apirilaren 6ko aginduaren bidez argitaratutako jokabideak, lege-egitasmoak, dekretuak, aginduak eta erabakiak lantzekoak (aurrerantzean, jokabideak).
95. Lehen adierazi denez, aurreproiektua bat dator aldatzeko arau batek izan behar dituen berezitasun teknikoekin (zazpigarren jokabidea).



96. Errata edo ez-esate gramatikalei dagokienez, ikusi da preposizio bat esan gabe geratu dela aurreproiektuaren hirugarren artikuluan, gaztelaniaz; horrek idazketa berri osoa ematen dio EENLren 6. artikuluari, eta hauxe esaten du hitzez hitz 1. apartatuko d) letran: “La nomenclatura del resto (de) las carreteras de la red de interés preferente se encabezará con una N”.
97. Aurreproiektuaren seigarren artikuluan, idazketa berri osoa ematen baitio EENLren 6. ataleko 1. apartatuari, 1. idazpuruko 3. atalbururako aipamena zehaztu beharko litzateke, legearen zenbaki kardinal bera duen beste kapitulu batetik bereizteko.
98. Halaber, aurreproiektuaren zazpigarren artikuluan, idazketa berria ematen baitio 12. ataleko 6. apartatuari, planteatzen liteke komenigarria dela “aurregitasmo” terminoari eustea (“...aurregitasmoari onartu arteko biderapenak egingo zaizkio”).
99. Manuaren xedea Errepideen Plan Orokorra aldatzea denez (hasieran “aintzin-adierazpena” deitzen zaio), hobesgarria dirudi termino horri prozesu osoan eustea, burutu arte, hots, plana onetsi arte, horren ordeztu termino berri bat erabili beharrean; izan ere, horrek pentsaraz dezake beste dokumentu bat dela, plangintza-izaerako dokumentazioarekin bat ez datorrena.
100. Terminologiaren inguruko kontuak direla-eta, EENLk errealitate bera aipatzeko erabiltzen diren izen desberdinak batera litzazke.
101. Zehatz-mehatz, “Egitamuaen gai den Sarearen katalogoa” (3. ataleko c letra), “Egitamuaen Gai den Sarea” (6.2 ataleko a) letra), “Egitamuaen Gai den Sareko errepideen zerrenda Lege honen eranskin gisa jasotakoa” (7.3 atala) esapideek panorama nahasia sortzen dute beharrik gabe.
102. Amaitzeko, adierazi behar da EENL, antza, ez datorrela bat ematean behingoan gertatu ziren errealitateekin, eta agerian jarri dela aurreproiektu hau izapidetzean, haren edukia hirugarren aldiz aldatzea baitakar; hortaz, pentsatu behar da lege-xedapen guztiz berria emateko unea ez ote den heldu, aldaketa luzeak edo errepikatuak egiten jarraitu beharrean.

ONDORIOA

Batzordeak lege-aurreproiektu honen aldeko txostena ematen du, irizpenean agertzen diren gogoetak kontuan hartuta.



Eta hala ziurtatzen dugu, Gasteizen, 2018ko apirilaren 27an, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazi nahi dugu: batzordeari jakinarazi behar zaio azkenean onartzen den xedapena edo ebazpena, Antolamendu eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak (2006ko irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren bidez onartuak) 34. artikuluan xedatzen duen moduan eta epean.

O. I.:

Jesús María Alonso Quilchano,
Idazkaria

Sabino Torre Díez,
Batzordeburua

FIRMADO DIGITALMENTE POR:

Firmante: **AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA-COMISION JURIDICA ASESORA**
Fecha de la firma: **14/05/2018 9:06:06**